

UNAMUNOREN ERBESTEKO SONETOAK

Izotz apur bat inuitei saltzea lan gaitza dela pentsa daiteke, apostuan arrisku handirik hartu gabe. Halaber, Unamuno bilbotarrei zelan aipa dezaket arrakasta pixka batekin?

Egia da mirariak artetarik gertatzen direla. Aidibidez, duela bost urte, pastoral batekin Etxarri Aranatzen izan nintzen, zuberotarrek oholtzan Nafarroako Gorteen ereserkia kantatu genuen, eta hor nafarrek gureganik ikasi zuten. Aurten berriz, Baionan izan naiz beste pastoral batekin, eta René Cassin nor zen baionarrek sohütarrenganik entzun dute, haren izen-abizenez kanpo beren herritar handiaz gauza guti baitzakiten.

Haatik egun hemen, ezin dut holakorik amestu, Bilboko pentsalari ospetsuaz gutixko baitakit, eta zuek askoz ere gehiago. Agian hain ezaguna ez den zerbait aurkitu diot liburu txiki batean, hau da «*De Fuerteventura a Paris*». Ehun eta hiru sonetoz eгина da nagusiki, gazteleraz naski.

Aña Durruty-Charrittonena da, berari Fuerteventuratik lehengusina batekin igorria. Pierre Charrittonek duela bi urteko udan prestatu zidan, gomendatzen zidala frantsesez itzul nezan eta euskal sonetotan jarri, olerki mota horretan idaztera ohitua nintzenez gero. Erantzun nion irakurri bai, gogotik leituko nuela, haatik ez nuela idazteko gogorik, jadanik lanpetua nengoelako.

2011ko uda hura joan zitzaidan bere idazlan zamarekin, udazken betean franko libre gertatu nintzen, eta hitzeman ez nuen lanari lotu. Hastea zail izan bazen ere, batetik bertzera eskuak berotuz ibili nintzen, pilotan bezala: banan banan, Unamunoren ehun eta hiru sonetoak frantsesez itzuli nituen, eta jarraian euskal sonetotan egokitu.

Lehenbiziko sonetoa urriaren 12an landu nuen, azkena 2012ko urtarrilaren 31an bukatu. Sar hitza Iparraldeko bi hizkuntzetan idatzi nien ondoko egunetan. Azkenik Unamunoren jatorrizko sonetoak gazteleraz kopiatu 2013ko otsailan eta martxoan. Beraz orokorki, lau hilabeteko lana izan zen.

Sarako Idazleen Biltzarrean Lucien Etxezaharretari kopia bat utzi nion, ahalaz Maiatz argitaletxean agertzeko. Elkarteko lagunekin ikusi behar zuen. Ondotik baimenaren berri eman zidan, jakina ni boztu, eta usaiako zuzenketen ondotik, hona gure elkarlanaren fruitua.

Beti bezala, huts batzuek ihes egin didatela pentsu dut, haatik esperantza dut guti direla eta ez handiegiak. Bertzela balego, «ene falta» erratea nuke, eta alde zurretik egiten dut, zer hel ere...

Zein ote da liburuaren edukia?

Badakizuen bezala, Miguel Primo de Rivera jeneralak Espainiako erresuman agintea hartu zuen estatu kolpe bati esker 1923an, eta diktadura militar bat jarri. Ondotik agertu direnak ikusiz, erran daiteke diktadura zibilizatu bat izan zela, haatik ez pentsa ezta zenik, hortik urrun. Unamuno aurka jaiki zen elez eta idazkiz. Atxilotu zuten 1924ko otsail ondarrera, eta martxoaren 10ean deportatu Kanarietako Fuerteventura uhartera. Hortik ihes egingen du ber urteko uztailearen 21ean, frantses bela ontzi batean. Parisen biziko da hilabete zenbaitez, eta gero Hendaian kasik bortz urtez.

Erbestean bere gisako egunkari bat idazten du sonetotan: denetara 103 «ondu» ditu, horietarik 64 Fuerteventuran, 39 Parisen.

Batzuk, asko ere, politikazkoak dira. Hor Unamunok agertzen ditu bere haserrea eta samina diktadorearen aurka naski, baita gobernuburu izendatu duen Alfonso XIII erregearen aurka.

Espainiako liberalak eta sozialistak ere gogorki jorratzen ditu, legez kontrako gobernu tiranikoa onartzen bezala dutelako beldurrez, ahuleziaz, epeltasunez, oportunistoz, bihotz eta kemen eskasez.

Olerki satirikoak beraz; didaktikoak ere bai: Unamuno irakaslea ez dago behinere lo; epikoak ere baditu, bereziki betiko Espainia sakon eta handia goraiatzeko duelarik; intimistagorik badu, bere Bizkaia maitearen nostalgiz beterik, edo bere Cocha emazte laztanari eskainirik.

Hots erregistro guziak hunkitzen ditu aldizka. Plazer hartu dut horien irakurtzean, frantsesez itzultzean eta gehienik euskal sonetotan egokitzean. Hitzez hitzetik urrundu naiz zentzu sakonari lotzeko, bereziki euskaraz.

Ezin dut gorde poesia zaila dela Unamunorena, barnoia delako, sakona, zorrotza eta landua. Hizkuntza ere holakoa du, niretzat ez egiazki eroso, ezindut gutiago erran....

Gainera erdi hitzezko loturak egiten ditu Espainiako historiarekin, baita gaztelarazko letrekin, batez ere Carvantesen On Kixoterekin. Iberiarra ez den irakurlearentzat, erreferentzia horiek egiazko zailtasunak dakartzate tarteka, batzutan esoterikoak izateraino.

Baina ororkorki, Unamunoren erbesteko soneto horiek itzultzaile-egokitzaileari bezainbat atsegin ekar diezaiokete irakurleari, eta naski askoz ere lan gutiagorekin! Beraz irakurtzera aholkatzen zaituztet, haren lanak pena balio baitu, eta fidela egotera saiatu natzaio.

Esker mila zuen arretaz et harreraz.
Mesdames et messieurs, bonne lecture!

Jean-Louis Davant